

## **DEFINIZIOAK**

### **UR KONTSUMOAREN ESTADISTIKA (090215)**

#### **Hiriko ur-hornidura (hiriko hornidura-sistemetan hornitutako uraren kontsumoa)**

Hiriko hornidura-sistemen bidez azken kontsumitzaileei hornitzen zaien uraren bolumena, m<sup>3</sup>-tan neurtuta. Erakunde hornitzaileek kudeatzen dituzte.

#### **Ura hornitzeko iturri propioak (erakunde hornitzaileak ez diren beste titular batzuen aprobetxamenduetako uraren kontsumoa)**

Azken kontsumitzaileek zuzenean kontsumitzeko kendutako uraren bolumena, m<sup>3</sup>-tan neurtuta. Horniduren iturri propioak administrazioaren emakida edo baimena behar duten ur-aprobetxamenduak dira (gainazalekoak nahiz lurpekoak).

#### **Ura etxerako erabiltzea**

Ura etxerako erabiltzen dela ulertzen da egoitza-jardueren ondorioz etxean egiten diren ur-kontsumoez ari garenean.

#### **Industria-erabilera**

Hiriko hornidura-sistemen bidez hornitutako uraren kasuan, erakunde hornitzaileak industria-jarduerarako tarifa bat aplikatzen duen uraren kontsumoa industria-erabilerakoa dela ulertzen da.

Iturri propioetatik hornitutako uraren kasuan, industria-erabilerakoa dela ulertuko da 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako (JESN-2009) 05 eta 33 banaketen artean (biak barne) dauden jardueren ondorioz kontsumitutako urari buruz ari garenean.

#### **Merkataritza-erabilera**

Erakunde hornitzaileak merkataritza-jardueretarako tarifa aplikatzen duenean, uraren kontsumoak merkataritza-erabilera duela ulertzen da.

#### **Erabilera publikoa (erakunde hornitzaileen kontsumo propioa eta doako hornidurak barne)**

Erabilera publikoa da zerbitzu publikoetarako bideratzen den uraren kontsumoa, besteak beste kaleak garbitzeko, iturrietarako, kirol-instalazio publikoetarako eta abar.

Erakunde hornitzaileen eta doako horniduren kontsumoen bolumenak ere atal honetan sartzen dira, gehien-gehienak erabilera publikorako baitira.

### **Beste erabilera batzuk**

Beste erabilera batzuk direla ulertuko da 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko (JESN-2009) 36 eta 96 banaketan artean (biak barne) dauden jardueren ondorioz kontsumitutako urari buruz ari garenean.

### **Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera**

Erakunde hornitzaileak nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretarako tarifa aplikatzen duenean, uraren kontsumoak nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera duela ulertzen da.

### **Galerekin lotutako bolumena**

Inguruntetik bideratutako ur-bolumenaren eta kontsumitutako bolumenen baturaren arteko aldea, m<sup>3</sup>-tan neurtuta. Kontzeptu honetan sartzen dira azpi-zenbaketa, neurtu gabeko kontsumoak, iruzurrezko kontsumoak, sareetako ihesak eta sarearen eraginkortasunik ezak.

### **Kontsumo propioaren bolumena**

Hornidura-sistema kudeatzen duen erakundeak berak kontsumitutako uraren bolumena, m<sup>3</sup>-tan neurtuta. Erakunde hornitzailea udala denean, erabilera publikoaren parekoa da.

### **Doan hornitutako bolumena**

Erakunde hornitzaileek doan, hau da, kontraprestazio ekonomikorik gabe hornitzen duten ur-bolumena, m<sup>3</sup>-tan neurtuta.